

Bost milioi pezeta lapurto dituzte Gasteizko BEXen

GASTEIZ

Bi pertsonak Banco Exterior de España (BEX) Gasteizen duen egoitzan ostu zuten atzo goizean. Lapurreta hamaiakak eta laurdenak pasata gertatu zen BEXek Dato kalean duen egoitza nagusian.

Ordu horretan bi gizonen banku barrura sartu ziren mozorroturik pistola bana eskuan eta bost milioi pezeta (217.000 libera inguru) ostu zituzten. Ihesari eman aurretik lapurrek gezurrezko granada bat utzi zuten bankuko atearen ondoan.

Efe agentziak emandako informazioaren arabera, bikotea bankuan sartu bezain laster jo zuen bertako alarmak eta handik gutxira Poliziaren zenbait patruila agertu ziren bankuaren inguruan paratzeko. Iturri horien arabera, hasiera batean bankuaren barruan lagun batzuk bahituta zeudela uste zuen Poliziak baina geroago egia ez zela baieztatu zen. Bankuko atera ailegatu eta granada bat zirudiena ikusi zuten patruilakoek. Ondoren egindako ikerketetan frogatu zenez, balizko lehergailua gezurrezkoa zen, lapurrek poliziak bertatik uxatzeko asmoz propio jarritakoa.

Eferen arabera, bi gizonen poliziak bankura ailegatu baino lehen egin zuten ihes. Zenbait lekukok adizera eman dutenez, lapurrek oinez urrundu ziren BEXen egoitza nagusitik, eskuan almazen handi batzuen boltsa zeramatela.

Iruñeko XXI.



Udako Euskal Unibertsitatea

«Nazionalismoa indartzeko herri mugimenduak bultzatu behar dira»

Estatuari buruzko teoriak aztertu ditu Ander Iturriotzek

Estatuari buruzko teoriak aztertu zituen atzo Ander Iturriotzek Soziologia ikastaroan, eta gaia Estatua izanda, beronen indar sinbologikoaren aurrean euskal nazionalismoa berreraiki behar aritu zen. Hori lortzeko herri mugimenduak bultzatu behar direla esan zuen.

T.S. / IRUÑEA

Euskal nazionalismoari buruzko gogoeta egin zuen Ander Iturriotzek. «Horretarako azken hauteskundeetan nazionalismoak izan dituen emaitza kaskarratik abiatu naiz», agertu zuen. «Prozesu honetan hainbat parametro aztertu ditut: bipartidismoa, bipolarizazioa, telebista pribatuek izan duten soberazko eragina, guzti hau izan delako Espainiako Estatu eta sinbologiaren sostengarri, eta aitzitik, ukatu egin duelako nazionalismoaren egoera eta izaera».

Horretaz gain, nazionalismoak berak dituen ezaugarri batzuk aztertu zituen: «Zatiketa, helburu finkogabetasuna, estrategia nahasia. Eta hori dela eta, euskal nazionalismoak eman behar duen lehen urratsa bere sinbologia indartzea da». Sinbologia hau indartu egingo da, «alde batetik, gizarte mugimenduetatik, eta bestetik, euskalgintzatik». Iturriotzek garbi azaldu zuen: «Euskal nazionalismoak ez badu bere izakera hori sinbologikoki adierazten, Espainiak gainezkatu egingen du».



Ander Iturriotz euskal nazionalismoaz mintzatu zen. OSKAR MONTERO

Hori nola egin?: «Herri mugimenduak bultzatzea da Espainiako sinbologiari aurre egiteko era bakarra». Hala ere, bide politikoak ez direla ahaztu behar adierazi zuen soziologoak, eta orain arteko politika eraldatzeko bidea «kulturgintzan eta herri-gintzan gutxieneko adostasuna lortzea» dela nabarmendu zuen.

Bortizkeria politikoaren inguruan, berriz, ahalegin politikoak egin behar direla aldarrikatu zuen: «Hau da nazionalismoak berak bere hedakuntzarako daukan eragozpen handiena». Gai honetan talde nazionalista guzti «ausardia» eskatu behar zaie-

la azaldu zuen, eta gero, «ikuspegi politiko zabalagoa. Arazo honi erantzun bat eman behar zaio».

NAFARROA Euskal nazionalismoaren berre-
ETA raikuntzan Nafarroan beste estrategia bat behar dela aipatu zuen, «egoera oso ezberdina delako». «Nafarroari autonomia osoa eman behar zaio, bai estrategian, nolabait Oinarriak Plataformak urratu duen bitetik, bai postuladotatik». EAEn izan daitezkeen «postuladotatik gogor horiek, oinarri sozialaren isla, kontraesanean izan daitezke Nafarroan».

Nazionalismoaren eduki etikoaz aritu zen Beltza

IRUÑEA

«Guretzat nazionalismoa izan da beti gure borrokaren iturria. Nonbait borroka lortzeko oso inportantzia handia dauka jakiteak zuzen ari garela, etika eta moral aldetik, baina garai batez sinplea zena orain konplikatu egin da», adierazi zuen atzo Emilio Lopez Adan 'Beltzak'. Garai batean, «iraultzak edo klase borrokak ematen zion edukia borroka nazionalistari. Gaur egun, horrelako ikuspegia ezabatzen ari da».

Egun, bere esanetan, «bada oso kontrajartze handia nazionalismo etniko edo jatorrizkoaren eta gero demokraziaren artean, demokraziak jatorri etniko desberdineko jendeari eman behar baitio elkarrekin bizitzeko koadroa». Gauzak horrela, jende askorentzat «demokraziaren legitimitateak nazionalismoa ezabatu beharko luke». Horrek «bidegurutze batean» gaudela esan nahi du, eta «pentsatu behar dugu gaurko koordinatetan zein den nazionalismoaren eduki etikoa».

Ekialdean gertatutakoak ere mintzatu zen Beltza, bi eragin izan dituela esanez: «Batetik, eduki orokorrari buruzko eragina, gure aberztaletasunaren barnean marxismoak eragin handia izan baitu, borrokaren edukia iraultzaile izateak ematen zion. Baina ikuspegi marxistak porrot egitean biluzik geratu gara». Bigarren eraginak zerikusia du ekialdeko nazio batzuetan askatasuna lortzeko borroka latzak izatearekin.

ASMATU idazle hauek zeinek duen zer kontatua abuztuan


Egunkaria



John Le Carré



Rosa Montero



Tom Wolfe



Marguerite Duras



Salman Rushdie



Jose Saramago



Ismail Kadare



Arantxa Iturbe